

ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA ESKAERETARAKO BALDINTZAK

Baztango eremu publikoak besta edo ekintza ezberdinak antolatzeko Udalari partikular edo erakundeek egiten dieten eskaeren aitzinean kontutan hartu beharrekoak zehaztea du helburu agiri honek, ekitaldi publikoetan bete beharreko baldintzak arautzea hain zuzen.

Maiz iristen dira Udalera espazio publikoak helburu ezberdinekin erabiltzeko eskaerak, hala nola: gazte egunak, kontzertuak, jaialdiak, kirol ekintzak, etab. Badira ere ekitaldi publikoetan (edo diru publikoz lagundutakoetan) parte hartzen duten partikular edo erakundeak ere (Azienda ferian ostatua jartzen dutenak adibidez).

Ekitaldi guztietan Nafarroako Hondakinen Legeko (LF 14/2018) 27. artikuluan aipaturiko neurriak betetze bidean eta ekintzen antolatzaileek hauek sortutako ondorioen gain erantzunkizuna hartzeko helburuz honakoak proposatzen dira erakunde publikoek antolaturiko ekintzetarako, eremu publikoetan antolatzen diren ekintzetarako edota diru publikoa jasotzen dutenetarako:

- > HONDAKINEN PREBENTZIOA KONTUTAN IZANEN DA. Horretarako:
 - Iturriko uraren erabilpena lehenetsiko da, inguruko ur-hornidura sarea baliatuz. Plastikozko ur botilen erabilera edozein kasutan debekatua egonen da.
 - Erabilera bakarreko baxera debekatua egonen da. Udalean baxera berrerabilgarria eskatzeko aukera izanen da: <http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/sites/56/2013/04/BAXERA-ESKAERA-EUS.pdf>

- > HONDAKINEN KUDEAKETARI DAGOKIONEAN:
 - Sortutako hondakinak era egokian kudeatu beharko dira (gai organikoa barne). Udalean hondakinak bereizteko ontziak eskatzeko aukera egonen da: <http://www.baztan.eus/wpcontent/uploads/sites/56/2020/02/BIRZIKLAP-EN-ONTZIEN-ESKAERA-eusk-1.pdf>

- > GARBIKETA:
 - Eremu publikoa erabiltzen den kasuetan, hau aurkitu bezala utzi beharko da garbitasunari dagokionean, horretarako ekintzaren dimentsioetara eta sortutako zikinkerira egokitutako fidantza bat eskatuko delarik.

Baztanen, 2020ko otsailaren 26an
MIREN MEOKI. Hondakin teknikaria